

## Altza

**Olaia Razkin** | 943-353380


Aurten auzoko kaletan makina bat danbor nahiz upel berrien hotsa entzun ahal izango da. Izan ere, Koxkorra elkarteko danborrada lehen aldiz aterako da 2001. urte honetan. Jose Mari Fernandez da Koxkorra elkarteko burua.

**n**olaz bururatu zitzazuen danborrada berria sortzea?

Lagunarteko kontua izan zen, izan ere, betidanik izan dugu danborradarako zaletasuna. Hasieran hamabost lagun besterik ez ginen, baina Altzako Koxkorra elkartea sortu eta gero, inguruko jendea hurbiltzen hasi zitzagun

**«Dagoeneko mendirik ez da ikusten lehio artetik begiratuta»**

# «Danborrada gauean giro hotza nagusi da Altzan»



Bertan jaioa ez izan arren, Jose Mari urte asko daramatza Altzan bizitzen, bere hitzei kasu eginez gero, baita gustura bizi ere.

gurekin jo ahal izateko. Helburua Altzako gaua are gehiago alaitzea da. Dirudienez lortu dugu, edo lortzeaz gaude.

**Altzako bizilaguna zara, zein iritzi duzu auzoaz?**

Pozik bizi naiz hemen. Leku lasaia da, nahiz eta egoera hori nabarmen aldatzen ari den. Gehien gorrotatzen ditudan gauzak dorre luze itsusi horiek eta aparkatzeko leku eza dira. Garai batean Altza lo

egiteko auzoa besterik ez zen, baserri giroa ia erabat desagertu da, eta dagoeneko mendirik ez da ikusten lehio artetik begiratzerakoan.

**Zer deritzozu Auditz-Akular proiektuari?**

Ez dut informazio gehiegirik, baina ez da irudimen askorik behar datorkiguna aurreikusteko: kotxe gehiago, jende gehiago eta ondorioz, arazo gehiago. Bestalde, lehen aipa-

tu dudana, paseatzeko mendi puska bat gutxiago izango dugula. Bizimoduari dagokionez, ez dut uste gehiegi aldaketu denik, altzatarren bizimodua duela denbora asko aldatu baitzen, zoritxarrez.


**Hemen gustura bizi zarela diozu, zein abantaila ditu Altzan bizitzeak?**

Bilguneak oso eskuragarri dituzu. Bestalde, ez duzu zertan Altzatik atera beharrik, erosketak eta parrandak hemen egin ditzakezu. Egun, jartzen dituzten kontrolen ondorioz, altzatarrek auzoan gelditzen dira kotxea ez hartzearen, eta horrek guztiak auzoa asko biziberritu du.

**San Sebastian bezperan ez da gauza bera gertatzen, ordea.**


Ez, hemen danborradarekin ateratzen garenek besterik ez dugu bizi San Sebastian bezpera. Jende gutxi izaten da kalean jaia bizitzen, eta giro hotza nagusitzen da, dena den, gu hunkitu egiten gara Donostiako martxa joaz. Aitorpen bat egin behar dizut, ordea: Altzako ibilbidea amaitu eta gero, Donostia aldera abiatzen gara hiriko jaiari murgiltzera.

**San Telmoko Goilarea**



Pintxoak, Kaxuelak, Miniatura Sukaldaritzak eta Platerakoa

**Urgullu**



Abuztuaren 31. kalea / 20003 DONOSTIA

BIATK



ELEKTRO MEKANIKA

Kotxe konponketa

Zurriola Pasealekua, 24  
Tel. 943 27 56 60  
20002 DONOSTIA